

# Garbitokiko Animen alde

BEDERATZIUÉNA



1931

PEDRO M.<sup>o</sup> IZAGIRRE  
ELDUAYEN'go ERRETOREAK  
EGIÑA

ATV

5.892







M- 8738

R- 36307

ATV  
5.892

# Garbitokiko Animen alde

## BEDERATZIUÉNA



PEDRO M.<sup>o</sup> IZAGIRRE  
ELDUAYEN'go ERRETOREAK  
EGIÑA





Gurutze santuaren...

Nere Jesukristo Jauna...

Garbitokiko animei

### OTOITZA

Garbitoki edo Purgatorioko sugelan sartuta, esan al baño aundiagoko oñazek daramazki zuten Jaunaren serbitzari txit maiteak, erruak (kulpak) utzi zizkizuten kutzuetatik, urrea surtan bezela garbi zaitezteneraño, Jaungoikua ikusi gabe egonaz: zein arrazoiz

eta bidez su-gar bizi orretatik dea-  
dar egiten diezuten zeron aide ta  
adizkideai, erruki-eske!

Ni errukitzen naiz zuen oñaze-  
tzaz, eta jai baneuka orrelako zo-  
rrak ordaintzeko aña ondasun!


Zerok baño beartzuago ni izan  
arren, ezkeintzen dizkitzuet eta  
zuen alde uzten ditut, gaur irabazi  
nitzazken indulgentzi guziak.

Baña ain laburrak izanik ere  
neie irabazi edo merezimentuak,  
Jaungoikuaren zuzentasunari  
(justiziarri) erantzuteko, lurreko  
apal, eta zeruko doastuen erregue-  
tara, Elizaren ondazuntegira, María  
txit garbiaren bitartekotasunera,  
Jesu-  
Cristoren odol txit ongarri neurrigabaren bi-  
dez, nator zuentzat laguntza ezke.



Eman zaiezu, Jauna, anima gaxo  
oiei, poz-atsegiñ, ain opa dutena.  
Baña denbora berean, nik ere uste  
det, o anima bedeinkatuak! zuek  
nitzaz oroituko zeratela, nere  
erruak eta obenak gutxitu ditezen,  
Jaunaren bildur donean aurreratu  
nadin, griña makurrak ezi ditzadan  
eta betiko zoriontasunera iritxi  
nadin. Ortarako era edo grazia,  
zuek, esku aundiko bitartekoak,  
Jaunagandik iritxi zadazute.

Ala izan dedilla.



## Lenengo eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut, zure Seme  
Jesusek Jetzemaniko baratzan  
ixuri zuan odol ongarritsuagatik,  
atera itzazula Garbitokiko ani-  
mak, batez ere geiena aztuta dau-  
denak eta eramán itzazula betiko  
atsegiñera, zu goratu eta onetsi  
(bedeinkatu) zaitzaten betitasun  
guztian.—Ala izan dedilla.

**Iru Aita Gure.**

### EZKEÑIA

Animen alden Bederatziurrena  
egitera egunik utz egin gabe  
joatea.

Egun guztietarako, Jesusi

## OTOITZA

O Jaungoikua kristau apal guztien Egillea ta redentorea!

Iritxi zaiezu zure mendeko anima gaxoai, oben edo pekatu guztien barkamena: iritxi ditzaten erreguen bitartez opa dituzten indulgenziak; Aita ta Espiritu Donearekin batera bizi ditezen |betikotasun guztian. Ala izan dedilla.

(Emen bakoitzak egingo du nai duan eskaera).

*Resp. Libera me Domine.*

## Bigarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut, Zure Seme Je-  
susek zigortuta ixuri zuan odol  
ongarriagatik, atera itzazula Gar-  
bitokiko animak, eta batez ere an-  
denbora geiena daramatenak,  
orrela len-bai-len asi ditezen Zu-  
goraldu eta onetsitzen betitasun  
guztian.—Ala izan dedilla.

Iru Aita Gure.

### ESKEÑIA

Astean bein edo geiagotan, Me-  
za entzutea animen alde.

## Irugarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut zure Seme Je-  
susek arantzazko koroa jarri zio-  
nean ixuri zuan odol ongarritsua-  
gatik, atera itzazula Garbitokiko  
animak, batez ere andik irtetzeko  
denbora gutxiena bear dutenak,  
lenbai-len igo ditezen zerura zu  
goraldu eta onetsitsera.—Ala izan  
dedilla. Iru Aita gure.

### ESKEÑIA

Biarko naigabe guztiak, Garbi-  
tokiko animen alde eramatea

## Laugarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut zure Seme Je-  
susek, Jerusalengo kalean, Guru-  
tzea bizkarrean zuala ixuri zuan  
odol ongarriagatik, atera ditzazula  
Garbitokiko animak batez ere ira-  
bazirik geiena dutenak, zu goraldu  
eta onesitzeko izan ditezen beti-  
kotasun guztian.—Ala izan dedi-  
lli.—Iru Aita Gure.

### ESKEÑIA

Esan ditugun arrokerizko itz  
guziak ordaintze arren, iru aldiz  
lurrari muñ egitea.

## Bostgarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut zure Seme Jesu-  
sek azkeneko aparian bere Apos-  
to!ai janaritzat eman zien Korputz,  
eta edaritzat eman zien odol onga-  
rritsuagatik, atera ditzazula Garbi-  
tokiko animak, batez ere Misterio  
oni maitasunik geiena izan diote-  
nak, berarekin goratua izan zai-  
tean, zure Seman ta Espiritu San-  
tuarekin batean betikotasun guz-  
tian.—Ala izan dedilla.

Iru Aita Gure.

ESKEÑIA

Biar Animen alde jatordu artean  
ezer ere ez jatia.

## Seigarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut zure Seme Je-  
susek gurutzean ixuri zuan odol  
ongarritsuagatik atera ditzazula  
Garbitokiko animak, batez ere guk  
zorrik geiena diegunak, gelditu ez  
ditezen gure erruz oñazetan. —Ala  
izun dedilla.—Iru Aita Gure.

### ESKEÑIA

«Jesus, Jose ta María, artu za-  
zute, nere biotz eta anima» esate-  
rakoan irabazten dan eun eguneko  
barkamena, Garbitokiko animen  
alde eskeintzea.



## Zaspigarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Erregutzen dizut zure Seme Je-  
susek saietzeko zauritik bere Ama  
guztiz garbiaren zamintasun aun-  
diarekin ixuri zuan odol onga-  
rritsuagatik, atera ditzazula Garbi-  
tokiko animak, batez ere Ama  
Birjiñaren gana naitasun aundi-  
enekoak, len-bai-len igo ditezen  
Zerura, zu goratu eta onetzitze-  
aren.—Ala izan dedila.—Iru Aita  
Gure.

ESKEÑIA

Biar Animen alde Jauna artutzea.

## Zortzigarren eguna

O Jaun eta Jaungoiko altsua!  
Zure eskuan daukazu gure erio-  
tzaren ondorengo epai edo sen-  
tentzia, eta arren eskatzen dizugu,  
askatu ditzazula mundu onetako  
pekatutik zure menpeko animak,  
izendatuak izan ditezen Zeruko  
Santuen artean.—Ala izan dedilla.  
Iru Aita Gure.

### ESKEÑIA

Animen alde limosnatxo bat  
egitia.

## Bederatzigarren eguna

O Jaungoiko errukitsua, beti barkatzeko prest zaudena!

Begira zaiezu zure mendeko anima gaxoai begi errukitzuakin, eta barkatu beren obenak, barkamen orren bitartez betikotasun guztian izan ditezen.—Ala izan dedilla.—Iru Aita Gure.

### ESKEÑIA

Gure elizkizun guztiak animen alde eskeintzia.

# ABESTIAK



Je - sus o - na di - zu - gu e -



re - gu - tzen be - naz Je - sus ona di -



zu - gu e - re - gu - tzen be - naz e -



re - gu - txen be - naz.



E - ru - ki zai - te - ze - la a -



ni - ma oi-en pe - naz e - r̄u - ki zai-



te - ze - la a - ni-ma oi-en pe - naz a -



ni - ma oi-en pe - naz.

# GARBITOKIKO ANIMEI

E'tar Jon'en eresia



Ar-tu e - za - zu Je - sus mai - te - a



on-tzat gu - re es ka - ri - a e - ta a - ni - ma



ga - i - xo ai - ei - i - ri - ki



lax - ter Ze - ru - a.

Batek



1 ¡O! gu - zaz az - tu - ri - kan bi - zi ze - ra -



te - nak            go - go - ra            i - tza - tzu - te



guk dauz-ka-gun mi - ñak bi - o - tza bi-gun -



tze - ko    di - ra - de    o - ne - nak.

- 2    Guraso eta ume  
     Semar-emazteak  
     anai eta añebak  
     zar eta gazteak  
     zuei deizka gaude  
     anima gaixoak.
  
- 3    Gu emen su-gařetan  
     lañi eta estu  
     ¿Eta zuek azturik  
     luñean jolastu?

min aundiagorikan  
iñork ere ez du.

4 Inguraturik gauzka  
osoro su gañak  
entzuten ezpadira  
or gure negañak:  
aditu itzatzute  
beintzat deadañak.

5 Lenago asko maite  
ginduzten biotzak  
batzuk oso azturik  
besteak ain otzak,  
guretzat oñek dira  
ezpata zoñotzak

6 Emen gaude ordaintzen  
pekatuen zoñak  
eta ala ere zuen  
belañiak goñak,  
¿Nola zuen biotzak  
dira ain gogoñak?

7 Eskatzen deguna da  
egiten eñeza:



otoitza, Aitortzea  
Jaunartzea, Meza...  
bakoitzak alduena  
orain egin beza.

8 Barkamenak, ordea,  
barau, naiz limosna  
guri lagundutzeko  
guzia da ona;  
bakoitzak egin beza  
ondoan zaiona.

9 Oroi zaitezte guzaz  
orain gau ta egun,  
emendik irtetzea  
iritzi dezagun:  
zeruau izateko  
gero gure lagun.

Nihil obstat

Vitoria 4 de noviembre de 1930

*Manuel de Lecuona*

IMPRIMATUR

Victoriae, die 11 februarii 1931

*MATTHAEUS*

*Episcopus Victoriensis*



